eskoriatzako udala

**ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** 1416

**GAIA:** Lokalak alokatzeko eta erosteko laguntzak 2024

**ESPEDIENTEA:** 2024MDID0004

**INTERESDUNA:** ESKORIATZAKO UDALA

2024ko maiatzaren 17ko Alkate erabakiz, ondorengo erabakiak hartu ziren:

*Lehenengoa.- Ondorengo dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea (honekin batera doaz eranskin gisa): Merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko edo negozio bat eskualdatzeko dirulaguntzak (2024).*

*Bigarrena.- Dirulaguntza horietarako deialdia egitea, iragarkia argitaratuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean eta Udalaren webgunean.*

*Hirugarrena.-* 6.900,00 €-ko gastua baimentzea indarrean dagoen aurrekontuko 01004714310001 aurrekontu aplikazioaren kargura.

Era berean, Dirulaguntza horien oinarri arautzaileen 4. artikuluaren arabera, laguntza horietarako aurrekontu-zuzkidura sei mila eta bederatziehun eurokoa (6.900,00 €) izango da, eta 2024. urterako 0100.471.431.00.01 aurrekontu-aplikazioaren kontura finantzatuko da.

Kontuan izanik akats bat egin zela deialdi horretarako erabilgarri zegoen aurrekontu-esleipena kalkulatzerakoan, ez baitziren kontuan hartu indarrean dagoen aurrekontuko 01004714310001 partidaren kontura onartutako konpromiso-kredituak, Alkate naizen honek honako hau

**ERABAKI DUT**

1.- Egindako akatsa zuzentzea eta 3.500 eurotan finkatzea merkataritza-establezimendu edo zerbitzu-establezimendu berriak irekitzeko edo negozio bat eskualdatzeko 2024 dirulaguntzetarako 01004714310001 aurrekontu-aplikazioaren kontura baimendutako gastua.

2.- Oinarri arautzaileetako 4. artikulua aldatzea, eta laguntza horietarako aurrekontu-izendapena hiru mila eta bostehun eurokoa (3.500,00 €) izatea.

ALKATEA,

ESKORIATZAKO UDALA
alkatetza

**EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA**
**2024/09/2011:57:38**

# RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

**Nº:** 1416

**ASUNTO:** Lokalak alokatzeko eta erosteko laguntzak 2024

**EXPEDIENTE:** 2024MDID0004

**INTERESADO:** ESKORIATZAKO UDALA

Por Resolución de la Alcaldía de fecha 17 de mayo de 2024 se adoptaron los siguientes acuerdos:

> *Primero: Aprobar las bases reguladoras para la concesión de las siguientes subvenciones (que se adjuntan como anexo): Subvenciones para la apertura de nuevos establecimientos comerciales o de servicios o para la transmisión de un negocio (2024).*
>
> *Segundo: Convocar dichas subvenciones mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en la Base de Datos Nacional de Subvenciones y en la página web del Ayuntamiento.*
>
> *Tercero: autorizar un gasto de 6.900,00 €con cargo a la aplicación presupuestaria 01004714310001 del presupuesto vigente.*

A su vez, en el art. 4 de la Bases reguladoras de dichas subvenciones se contempla que la consignación presupuestaria para dichas ayudas será de seis mil novecientos euros (6.900,00 €) y se financiará con cargo a la aplicación presupuestaria 0100.471.431.00.01 para el año 2024.

Resultando que se incurrió en un error a la hora de calcular la consignación presupuestaria disponible para dicha convocatoria por cuanto que no se tuvieron en cuenta los créditos de compromiso aprobados con cargo a la partida 01004714310001 del presupuesto vigente , esta Alcaldía

**R E S U E L V E**

1º.- Subsanar el error cometido y fijar en 3.500 euros el gasto autorizado con cargo a la aplicación presupuestaria 01004714310001 para el programa 2024 de Subvenciones para la apertura de nuevos establecimientos comerciales o de servicios o para la transmisión de un negocio.

2º.- Modificar el art. 4 de las Bases reguladoras y determinar que la consignación Presupuestaria para dichas ayudas será de tres mil quinientos euros (3.500 ,00 €)